

LIBRE

LEKEITIOKO UDALEKO UDALBATZARI ZUZENDUA

2013ko urriaren 14an eta 17an, Auzitegi Nazionalak Herriko Tabernak zein Segiren izenez ezaguna den epaiketari emango dio hasiera (35/02 eta 26/11 sumarioak). Epalketa hauetan bi herritar eta galarrena herriko taberna ari dira epaitzen. Herriko tabernen inguruko sumario hau duela hamar bat urte hasi zen Garzon epailearen ekimenez. Prozesu erraldoia da eta 40 pertsona daude auziperatuta talde armatuan parte hartzea eta harekin lankidetzaz aritzea egotzita, eta Herriko Tabernen kudeaketarekin eta ETaren finantzabideekin zerikusia duten delitu ekonomiko eta sozietateetakoak leporatuta. Segiren kontrako epaiketari berriz 40 auziperatu daude ere, eta bakoitzarentzat 6na urte espetxe zigorra eskatzen diete, Segiko kide izatearen akusaziopean.

Prozesu honek beste batzuk ekartzen dizkigu gogora, besteak beste 18/98 sumarioa (AEK) eta Euskaldunon Egunkaria sumarioa. Prozesu horiek ez zuten inoiz hasi behar, hasiera hasieratik oinarri juridiko-penalik gabeak izan direlako. Prozesu hauen sorburu eta garapenean nagusi izan ziren asmo eta inspirazio politikoa. Prozesu hauek justiziaz kanpoko irizpideek markatu zituzten, besteak beste, nahita gainditu zen erakunde terrorista barruan egoteak eta harekin lankidetzan jarduteak duen esanahia, horretarako probarik egon gabe. Auziperatuei ETako kide izatea edo harekin lankidetzan aritzea egotzi zitzaie, hori esateko argudio bakartzat lege barruan garatzen diren jarduera kulturalak, prentsa lanak edo politikoak erabiltzea, eta dena ETaren mende zegoela ezarri. Hori dena egin zen testuinguru politikoan PPreneko Gobernuak PSOEn lankidetzari esker Alderdiaren legea egin zuen, ondorengo ilegalizazio prozesuak ekarri zituen.

Urte batzuk geroago, lehenagoko kontua errepikatu da. Gainera, epalketa bestelako testuinguru batean garatuko da. Oraingo zailtasun eta konplexutasunekin ere, bake eta normalizazio prozesua Euskal Herriko erakunde politiko eta sozialek bereganatuta duten garaian, hain zuzen.

Horiek arrazoi guztiek erakusten dute prozesu judizial horren hasierak atzeraldia suposatzen duela, elementu asaldatzailea da euskal gizartea normalizazio politikorako bidea egiten ari den une honetan. Eta, hori dena, inputazioek oinarri ez dutela aparte utzirik, hainbat abokatuk gaiaren inguruan izenpetu duten manifestuan argi geratzen denez. Hartara 35/02 zein 26/11 sumarioek gutxieneko oinarri juridikorik ez dute. Hori dela eta, kausa hauek ez ziren sekula hasi behar edo, bere kasuan, kausa eta prozedura artxibatu behar ziren, bake prozesuari eta Euskal Herriko normalizazio politikoari lagunduz.

Goian aipatutakoagatik ondoko puntuak onartzea eskatzen diogu Lekeitioko Udaleko Udaltzari:

1.- 35/02 eta 26/11 sumarioak gaitzesten ditu, eta inoiz hasi behar ez ziren prozesuak berehala ixtea eta auziperatu guztien absoluzioa ezartzeko erabaki juridikoa hartzea exijitzen du .

2.- Hau horrela, burutzen ari diren eta burutzeko falta diren epaketak bertan behera uztea eta honen ondorioz espetxeratuak izan diren pertsona guztien kaleratzea exijitzen du.

3.- Audientzia Nazionalari erabaki honen berri eman eta eskaera bideratu, baita herritarrei erabaki hau jakinarazi.

4.- Aurreko ildoari jarraituz, elkartasun zintzoa erakutsi 80 inputatuei.

Lekeition, 2014ko urtarrilaren 29an